

A D U N A

Hedadura: 7 km²

Biztanlegoa: 296 biztanle.

Jaiak:

■ Herrikoak: Abuztuaren 15ean, Andra Mariaren Jasokunde

■ San Isidro, nekazarien zaindaria: Maiatzaren 15ean. Baserritarren festa.

Oria ibaiaren ezker aldeko bizkargune batean kokaturik, herri honek, Andoain du mugari ekialdetik, Zizurkil mendebaldetik, Billabona hegotik eta Sorabilla iparraldetik.

1386ko martxoaz geroztik Alkiza eta Asteasurekin batera Tolosako barrutian barne-sartzen delako berri dago. Autonomiari eutsiko dio errenten-administrazioari, mendien erabilerari eta gainerako berezko ondasunei dagokienez. Tolosari hitz emango dio beharrezko liratekeen baterako gastuetan partaide izateko.

Administrazio gisako arazoak tarte, 1435ean hasitako auzi baten ondorioz Aduna Tolosatik bereizi egiten da eta 1450. urte inguruan Donostiari uzatzen zaio, bi hiribilduen arteko arazo-iturri bihurtzen delarik, nork bere jabegotza titulua eskatzen bait zuen. Bien arteko sistrak 1479an baretu ziren, Aduna behin-betiko Donostiari lotzen zitzaion itune baten bidez. Halaxe jarraitu zuen XIX. mendera arte, harik eta udal autonomia eskuratu zuen arte.

H R G U N E A

Aduna, inguru bereko beste hainbat herrixkaren antzera, tradizioz baserri eta baso eremu izan da. Azken urteotan, ibarraren kokagune aproposak eraginda, industri hedapen zabala izan du batik bat behekaldeko eremuetan, Billabona eta Andoaingo herrien artean, Oriaren ibaiertzean lekuturik daudenak.

Herriak gainerantzean, aitzin garaietatik jasotako tradiziozko itxurari eusten dio, etxebizitza berri zenbaiten ugaltzea alde batera.

Gune nagusia Elizaren inguruan biltzen da. Jasokundeko Andra Mariaren zaindartzapeko elizak (*6) portada gotikoa arku zorrotzekoa du, hainbat arkibolta xumez apaindua.

Barrena nabe bakarrekoa da, alboetara bi kapera dituena. Ezkerreko kaperan gotiko erako Kristo gurutzatua dago.


Korua goratua dago eta gainezka apaindua dagoen arku karpanel batek eusten dio. Lore-motiboen artean koruaren artista egite-



Apaizetxea.



Gurutze Santuaren basiliza





Jasokundeko Andra Mariaren parroki-eliza.

ratzailea aitatzen duen kondaira daukagu: Nicolas Garagarza eta garaiko eliza ardura-duna: Etxaniz batxilerra. Beheraxeago, erakuntza data irakur daiteke: 1599.

Eliza gune goititu batean dago lekuturik, eta bertatik ibar osoaren gaineko ikuspegia hartzen da. Enparantzako etheen artean Torre baserria da nabarmen (*3), giltzarria apaindua duen sarrera-arkua duena eta beste zenbait eraikuntza sakabana-turik; Apaizetxea ere bai (*7) goi mailako arkitektura elementuak dituena, sarrera-arkua esaterako, e.a.

Txantxane baserriak (*5), Segotegi etxeak (*8) eta Udalak (*2)-1953an inauguratua- osatzen dute Adunako enparantza nagusia.

Olatzarako (19-44) edota Goiburu auzorako irteran Sonola etxea (*4) lekutzen da. Errepedera begira dagoen fatxadak erdi-puntuko arkua du, antzin-itxurakoa. Beste hainbeste, leiho edota leiho-barrenetako euskari-ri dagokienez.



Portadaren xehetasuna.

UDALERRIA

Herrigunetik kanpora baserri ugari dago. Gehientsuenak herrialdeko tradiziozko arkitekturaren eredu bikainak dira: Olatza (1944) aurrez aipatu duguna, Zabale (19-43), Aitzarte (19-41), Ulanberro (19-42), goi aldean; Agramonte (19-49), Lardi-ozin (19-50), Galarregi (19-46) eta Galarraga (19-47), Oriaren ibaiertzetik bertan. Alderdi honetan Apakintza baserria dugu (19-48) eta honek ertaroko elementuak ditu, arku zorrotzak, esaterako. Antzinako Dorretxea izan zela dirudi, gerora baserri bihurtua.

Elizatik behera Eibarrenara datorren errepede alboan, herriaren behekaldean, hilerria dago (*1). Hilerri-rako bidean 1760ko data duen gurutze-bidea dago.

Azkenik, Santa Krutz basiliza dugu aipatzeko, herriko beste leku interesgarri bat den aldetik. Etxe txikia da, berriki eraikia, barnean erretaula xume bat biltzen duena.



Torre baserria.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

